



# Harmonizazio fiskala, estatuko laguntzak eta Daewoori emandako laguntzei buruzko Europar Batzordearen Erabakia

(Tax Harmonization, State Grants and the Decision of the European Commission on the Grants to Daewoo)

AIZEGA ZUBILLAGA, Joxe Mari

Finantza Zuzenbideko doktore irakasle laguna. Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.  
Manuel de Lardizabal, 2  
20009 Donostia  
dppaizuj@sd.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (1999), 4; 53-63]

**B**arne Merkatuan salgaiak, pertsonak, zerbitzuak eta kapitalak erabateko askatasunarekin mugitzeko, europar erakundeak saiatzen dira eskualdaketak oztopa ditzaketen eragozpenak identifikatu eta ezabatzen. Eragozpen fiskalak desagertarazteko biderik egokiena harmonizazio fiskala da. Halere, harmonizazioa aurrera eramateko dauden arazoak direla eta, europar erakundeek badute beste baliabide bat hainbat eragozpen fiskal gainditzeko: lehiatzeko baldintzak distorsionatzen dituzten arau fiskalak "estatuko laguntza" gisa kalifika ditzakete. Hori dela eta, europar Batzordeak euskal erakundeek Daewoo enpresari emandako laguntzak, *estatuko laguntza* eta Erromako Hitzarmenaren aurkakoak direla erabaki du.

**Z**as mercancías, las personas, los servicios y los capitales deben poder circular libremente en el Mercado Interior. Por ello, las instituciones europeas tratan de identificar y eliminar las distorsiones que obstaculizan los intercambios intracomunitarios. La armonización fiscal sería la mejor solución para eliminar los obstáculos fiscales. No obstante, dadas las dificultades que encuentra el proceso armonizador, las instituciones europeas utilizan otro medio para eliminar muchas de las distorsiones fiscales: proceden a calificar como "ayudas de estado" a las normas fiscales que distorsionan la competencia. De esta forma, la Comisión europea ha calificado como "ayudas de estado" y, por tanto, como contrarias al Tratado de Roma, diversas ayudas que las instituciones vascas han otorgado a Daewoo.

**Z**es marchandises, les personnes, les services et les capitaux doivent pouvoir circuler librement dans le Marché Intérieur. Pour cela, les institutions européennes tentent d'identifier et d'éliminer les distorsions qui entravent les échanges intercommunautaires. L'harmonisation fiscale serait la meilleure solution pour éliminer les obstacles fiscaux. Cependant, vu les difficultés que rencontre le processus harmonisateur, les institutions européennes utilisent un autre moyen pour éliminer bien des distorsions fiscales: elles qualifient d'"aides d'état" les normes fiscales qui dénaturent la concurrence. De cette façon, la Commission Européenne a qualifié d'"aides de l'état" et, donc, contraires au Traité de Rome, différentes aides que les institutions basques ont concédé à Daewoo.

1. Barne Merkatua lortzeko eragozpen fiskalek duten garrantzia. 2. Harmonizazio fiskala, eragozpen fiskalak gainditzeko irtenbiderik egokiena. 3. Eragozpen fiskalak ezabatzeko beste baliabidea: estatuko laguntzak. 4. Daewoori emandako laguntzak. 5. Arabako araudian aurreikusten diren DEMESAK jasotako "laguntza" fiskalak.

## 1. Barne Merkatua lortzeko eragozpen fiskalek duten garrantzia

2001. urtetik aurrera EUROa izango da Europako moneta. Europar Ekonomia eta Moneta Batasuna, europar integrazio ekonomikoaren azkeneko fasea da. Europan, moneta eta moneta-politika bakarria izango dira. Europar eraikitze prozesuan integrazio ekonomikoa oinarritzeko helburua izanik, bere zutabeetako bat Merkatu Batua da. Merkatu Batua edo Barne-Merkatua estatu kide guztiek osatuko lukete eta bertan salgaiak, pertsonak, zerbitzuak eta kapitalak erabateko askatasunarekin mugituko lirake.

Hasiera hasieratik, Barne-Merkatua posible izan zedin, europar erakundeak saiatu ziren eskualdaketak oztopa zitzaketan eragozpenak identifikatu eta ezabatzen. Lehenengo pausoa izan zen Batasun barneko mugen eta aduanen desagerpena, aduanak desagertzearekin aduana zergak ordaintzeko obligazioa ere desagertu baitzen. Ez zen nahikoa, ordea, aduanek suposatzen zuten oztopoa ezabatzea, beharrezkoa zen ere oztopo fisiko, tekniko eta fiskalak gainditzea<sup>1</sup>. Moneta bakarraren ideia egitasmo horretan kokatzen da; merkatu batean moneta nazional ezberdinak –bakoitza bere ganbio-tasarekin– erabili behar izateak, europar mailako eskualdaketetan parte hartzen zutenentzat eragozpenak sortzen baitzuten.

Oztopo edo distortsioen artean nagusi ziren distortsio fiskalak. Distortsio fiskala, zentzu zabalean, zerga jatorria duen edozein diskriminazio da, merkatuan lehiatzeko baldintzengan eragina duena eta salgai, pertsona eta zerbitzuen zirkulazioan aldaketak sortarazten dituena<sup>2</sup>. Berehala ohartu ziren europar

“ Arazoa, ezabatu behar ziren distortsio fiskalak identifikatzea zen.

”

erakundeak Merkatu Bakarra errealitate bat izan zedin, beharrezkoa zela eragozpen fiskalak desagertzea.

Arazoa, ezabatu behar ziren distortsio fiskalak identifikatzea zen. Zeregin horrekin bildu zen 1960. urtean Europako Ekonomia Elkarteko Batzorde Fiskal eta Finantzarioa. Batzordeak, distortsioen azterketa zorrotza egin ondoren, hiru taldetan sailkatu zituen: 1) Zerga-zama globalen arteko ezberdintasunak; 2) Gastu publikoen zenbatekoetan eta konposaketan ezberdintasunak; eta 3) Zerga-sistemen egituren arteko ezberdintasunak.

Batzordeak ez zien garrantzi handirik eman, ez zerga-zama globalen arteko ezberdintasunei, ezta estatu bakoitzak buruturiko gastu publiko mailari ere. Bere iritziz, aurreko bi ezberdintasunek, garrantzitsuak izanik, ez zuten suposatzen Merkatu Batuentzat arrisku larri bat. Batzordeak hirugarren distortsio taldea aztertu zuen sakonki. Bere iritziz, Europar Elkarteko herrialdeen sistema fiskal ezberdinek lehiatzeko baldintzengan eragina izan zezaket<sup>3</sup>.

Oro har, sistema fiskalen egitura ezberdinak sorturiko oztopo egonkorak hiru modutan ezaba daitezke<sup>4</sup>:

- Konpentsazio edo neutralizazio prozeduren bidez. Distortsioek lehiatzeko baldintzengan sortzen dituzten ondorioak konpentsatzen dira, baina sorburua deuseztatzen gabe. Ez da behin betiko irtenbidea, ez baitira zuzentzen distortsioak sortzen dituzten zergati

1. Orduko EEE Hitzarmenean, Barne-Merkatu Batua definitzen da, esanaz, "espacio sin fronteras interiores, en el que la libre circulación de mercancías, personas, servicios y capitales están garantizados".  
2. Ikus CALLE SAIZ, Ricardo: *La armonización fiscal europea: un balance actual*, Editorial AC, Madrid, 1990, 1. or.  
3. Sistema fiskalaren egitura ezberdina izan zitekeen, bai ikuspegi kualitatibo batetik –Estatu bakoitzean zerga ezberdinak zitueta– eta baita kuantitatiboki ere –zerga berdinek gehiago edo gutxiago kargatzen zizutzelako egitate berdinak–.  
4. Ikus CALLE SAIZ, Ricardo: *La armonización...*, op. cit., 8. or.



edo kausak. Aukerarik errazena dela esan ohi da<sup>5</sup>.

- Harmonizazio fiskala erabiliz. Integratzen diren herrialdeen finantza jarduerak hurbilduz, distortsio fiskalak progresiboki ezabatzen dira.

- Erabateko integrazio edo bateratze fiskala lortuz. Oztopo fiskalak hasiera-hasieratik ezabatzen dira. Teorikoki aukerarik onena izango litzateke, Merkatu Batua osatzen duten estatuen arteko distortsio fiskalen desagertzea ekarriko bailuke. Bateratze fiskala epe luzerako helburua da. Nahitaez, lehenik zergak harmonizatu egin beharko dira eta, ondoren integratu ahal izango dira Europako zerga-sistema guztiak. Balizko irtenbiderik egokiena baldin bada ere, egun, pentsaezina da batasun fiskala lortzea, arazo ekonomikoak eta politikoak sakonegiak dira eta.

## 2. Harmonizazio fiskala, eragozpen fiskalak gainditzeko irtenbiderik egokiena

Harmonizazioak Europako sistema fiskalen hurbiltze progresiboa du helburu. Merkatu Batua oztopatzeko gai diren distortsioak ezabatzea zuzenduriko prozesua da<sup>6</sup>. Harmonizazio fiskala bi indarren artean aurkitzen da: batetik, Europar erakundeek Merkatu Batua oztopa dezaketen distortsio guztiak ezabatzeko duten helburua; eta bestetik, estatu kideen barne politikako arazoetan ez sartzeko borondatea. Eragozpen fiskalak Barne-Merkatuan ematen diren eskualdaketentzat eragozpen bat direla aho batez onartzen da. Baina aldi berean, distortsio fiskalak desagertzeko, beharrezkoa da estatuek beraien subiranotasun fiskala europar erakundeekin elkarbanatzea.

Harmonizazioak izaera instrumentala du. Harmonizazioa, berez, ez da Elkarteko Hitzarmenen oinarritzko helburua, ezta Merkatu Batuaren helburua ere. Harmonizazioa, arau fiskalek Merkatu Batuaren funtzionamendu egokian sor ditzaketen distortsioak zuzentzeko bitarteko bat besterik ez da. Bitarteko bat bezala ulertu behar da. Europar integrazio ekonomikoa eta Merkatu Batua lortzeko bitarteko bat<sup>7</sup>.

Harmonizazio fiskala Merkatu Batuarentzat gai garrantzitsuenetako bat izanda ere, ez da Erromako Hitzarmenean ia aipatu ere egiten<sup>8</sup>. Egun, Europar Elkartearen Hitzarmenean, xedapen fiskalei buruzko artikulua bakarrak 90. eta 93.a bitartekoak dira. Xedapen gehienak zeharkako zergen harmonizazioari buruzkoak dira. Zerga zuzenei buruz, ez da zuzenean *harmonizazio* hitza erabiltzen. Bere ordean, *legedien hurbilketa* aipatzen da.

Zeharkako zergak harmonizatzeko edo zerga zuzenen araudia hurbiltzeko erabakiak "aho batez" hartu behar dira. Ukanbehar hori izan da, orain arte, harmonizazio fiskalaren arrakasta zapuztu duena. Harmonizazioa ezingo da Kontseiluaren gehiengo kualifikatuaz onartu. Gehiengo kualifikatua hainbat gaiei buruzko legedia hurbiltzeko erabil daiteke, baina ez arau fiskalak hurbiltzeko.

“ Harmonizazioa, berez, ez da Elkarteko Hitzarmenen oinarritzko helburua, ezta Merkatu Batuaren helburua ere. Harmonizazioa, arau fiskalek Merkatu Batuaren funtzionamendu egokian sor ditzaketen distortsioak zuzentzeko bitarteko bat besterik ez da.

”

5. Ikus VEGA MOCOROA, Isabel: *La armonización del IVA y el logro del Mercado Interior*, Centro de Documentación Europea, Universidad de Valladolid, Lex nova, Valladolid, 1991, 64. or.; MATA SIERRA, María Teresa: *La armonización fiscal en la Comunidad Económica Europea*, Lex nova, Valladolid, 1993, 38. or.
6. Iritzi honetakoa da CALLE SAIZ, Ricardo: *La armonización...*, op. cit., 10. or.
7. Ikus MATA SIERRA, María Teresa: *La armonización fiscal...*, op. cit., 69. or.
8. Ikus SIMON ACOSTA, Eugenio: "Armonización fiscal en Europa: imposición directa", *Economía y Derecho Empresarial*, Eunsa, Pamplona, 1988, 117. or. MATA SIERRA, María Teresa: "Perspectivas de la armonización de la fiscalidad directa ante la Unión europea", *Sistema Fiscal y armonización europea*, Marcial Pons, Madrid, 1995, 178. or.



Hitzarmenak, 96. eta 97. artikuluetan, harmonizazioan lagun dezaketen arau batzuk aurreikusten ditu. Estatu kide bateko arau fiskalak Barne-Merkatuan lehiatzeko baldintzengan eragina baldin badu, eta ondorioz, ezabatu beharreko distortsio bat eragiten badu, estatu kideak kontsultatu ondoren, Batzordeak arteztarau edo direktiba onar dezake helburu horretarako. Aldi berean, estatu batek onar dezakeen arau fiskalak merkatu batuan lehiatzeko baldintzengan eragina izan dezakeela, eta ondorioz, distortsio bat izan daitekeela, uste izateko arrazoi nahikorik baldin badago, estatuak Batzordea kontsultatu beharko du. Batzordeak, beste estatuekin kontsultatu ondoren, distortsioak saihesteko neurri egokiak proposa ditzake.

Ikus daitekeenez, Hitzarmenak ez du aginduzko araurik aurreikusten. Estatuaren partaidetza eta laguntzarik gabe ezingo da harmonizazioa aurrera eraman. Egia da ere, Hitzarmenak harmonizazioa aurrera eramateko euskarri juridiko bat ematen duela, eta Elkarteko erakundeek euskarri horretaz baliaturik bultzatu beharko dutela harmonizazio fiskala.

Europar Elkarteak sortu zirenetik gaur arte harmonizazio fiskalak izan duen bilakaera aipatzeko, zeharkako zergak eta zerga zuzenak banan-banan aztertu behar dira, zerga-talde bakoitzak bere bilakaera propioa izan baitu.

**Zeharkako zergak** dira, subjektu pasiboaren ahalmen ekonomikoa zeharkako modu batetan kargatzen dutenak. Gehienek ahalmen ekonomikoren erabilera grabatzen dute, alegia, kontsumoa edo gastua. Zeharkako zerga garrantzitsuenak Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) edo Zerga Bereziak dira.

**Balio Erantsiaren gaineko Zerga:** 1967. urtean BEZari buruzko lehenengo bi arteztarauak onartu ziren. Estatu guztietan BEZa ezarri zen, egitura berdintsuarekin, kontsumoaren gaineko zerga orokor bezala. 1977an beste arteztaraua onartu zen BEZaren elementu egituratzaileak eta oinarri zergagarria arautuz. 1985. urtean Batzordeak "Liburu Zuria" onartu zuen zergaren harmonizazioan eman beharreko pausoak aurreikusiz. 1991. urtean arteztarau baten bidez aldi baterako erregimena ezarri zen. 1993ko urtarrilaren 1ean Merkatu Batua indarrean sartu zenean, europar erakundeek harmonizazioarekin aurrera jarraitzea funtsezkoa zela adierazi zuten. Horretarako beharrezkoa zen: 1) Aldi baterako erregimena behin betiko bihurtzea eta BEZa salgaien jatorrizko estatutan ordaintzea (orain arte, aldi baterako erregimenean, BEZa salgaiak heltzen diren estatuan ordaintzen da); eta 2) BEZaren tasak harmonizatzea. Oraindik, estatu ezberdinetan existitzen diren tasen artean alde handiegia dago eta horrela ezin dira muga fiskalak ezabatu. Bi helburu nagusi horiek oraindik ez dira lortu.

**Zerga Bereziak:** zerga hauei buruzko Elkarteko araudia nahiko berria da. BEZarekin gertatu ez den bezala, dagoeneko, behin betiko erregimena onartu da. Irizpide bezala ezarri da kontsumitzen den herrialdean zergatzea. Erregimen hau 1993ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta ordutik zergen egiturak eta karga-tasak harmonizatuz ari dira europar erakundeak.

1997. urtean, Batzordeak FISCALIS izeneko programa onartu zuen BEZari eta zerga bereziei eginiko iruzurra kontrolatu eta erauzteko. 1997. urtean ere, Batzordeak BEZari buruzko arteztarau proposamen bat aurkeztu zuen. Nahiz eta zeharkako zergen harmonizazioan aurrerakuntza handiak egin diren, egoera ez da oraindik behar bezalakoa. Ekimen harmonizatzaileak bi oztopo aurkitu ditu: erabakitzeko prozedurak –aho bateko erabakiak– eta ez dagoela harmonizazioa aurrera ez eramatearen ondorioak kontuan hartzen dituen ikuspegi global bat.

**Zerga zuzenak,** zergadunaren ahalmen ekonomikoa zuzenean grabatzen duten zergak dira. Zerga hauek, batik bat, errenta eta ondarea kargatzen dituzte, hauek baitira ahalmen ekonomikoren adierazpen zuzenak. Adibide garbiak dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga.

Zerga zuzenen harmonizazioa, batik bat, arteztarauen bidez egin da. Arteztarauetz gain, beste arau asko aurki daitezke, baina gehienak arau-proposamenak dira. Argitaratu diren testu gehienak ez dira arau bihurtu, ez dira argitaratu eta ez dira indarrean sartu. Onartu diren arauak enpresen fiskalitateari buruzkoak dira, arlo honi lehentasuna eman baitzaio. Zehazki, bi arteztarau eta hitzarmen bat onartu dira enpresen fiskalitateari buruz.

- 90/434/EEE Arteztaraua, 1990eko uztailaren 23koa. Estatu kide ezberdinetako sozietateen arteko bategitea, bereiztea, aktiboek ekarpena eta akzioen trukatzearen erregimen komuna arautzen duena.

- 90/435/EEE Arteztaraua, 1990eko uztailaren 23koa. Estatu kide ezberdinetako sozietate nagusi eta filialen araudiari buruzkoa.

- 90/436/EEE Hitzarmena, 1990eko uztailaren 23koa. Enpresa elkartuen irabazien zuzenketen kasuan, zergapen bikoitzaren esekipenari buruzkoa.

Ordutik, saiakera asko izan dira harmonizazioan aurrera egiteko, baina



8. Ibarretxe lehendakaria eta buruzagi politikoak Daewoo eta Kontzertu Ekonomikoaren defentsan.

arrakastarik gabe. 1997ko abenduaren 1ean Ogasun ministroek aho batez onartu zituzten lehia fiskal kaltegarriaren aurkako neurri batzuk. Neurri hauen artean aurkitzen dira: jokaera kodea, aurrezpenaren fiskalitateari buruzko oinarriko neurriak eta enpresen arteko interes eta sari (kanonen) ordainketen gaineko atxikipena ezabatzeko akordioa.

Jokaera kodean aurreikusten diren irizpideak jarraituz, lan talde bat osatu zen ("Jokaera Kode Taldea"), Europar Batasuneko herrialdeetan indarrean dauden lehiaren aurkako neurri fiskalak identifikatzeko. Lan talde horrek 250 bat neurri identifikatu ditu, nahiz eta oraindik ez dituen sakonki aztertu ezta argitaratu ere. Hala ere, jakin da neurri horien artean badaudela Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldeetako eta Nafarroako arau fiskalak. Neurriak aztertu ondoren, lehiarentzat kaltegarriak izateagatik ezabatu beharreko neurriak proposatuko dira. Aurrezpenaren fiskalitateari buruz eta interes eta kanonen ordainketei buruz, bi arteztarau proposamen aurkeztu dira, baina oraindik ez da estatu kideen artean adostasunik lortu arteztarau horiek onartu eta indarrean sartzeko.

Zerga zuzenen harmonizazioan ez da aurrerapen handirik egin. Oztopo izan dira, beste arrazoien artean: herrialde kideek beraien

subiranotasunarekin erlazonaturiko kompetentziak lagatzeko erresistentziak; estatuek zerga zuzenen gaineko kontrola mantentzeko interesa; teknikoki dagoen zailtasuna, herrialde bakoitzak bere filosofia fiskala eta zerga-sistema ezberdina duelako; Europa osoan moneta bakarra dagoenez zerga zuzenak politika ekonomikorako funtsezkoak direlako, etab.

Harmonizazioaren aurrean, euskal tributuzko sistema beste edozein estaturen egoera berdinean aurkitzen da. Etorkizunean zerga guztiak harmonizatzen badira, europar erakundeak izango dira europar tributuzko sistemaren nondik norakoak finkatuko dituztenak.

### 3. Eragozpen fiskalak ezabatzeko beste baliabidea: estatuko laguntzak

Eragozpen fiskalak desagertarazteko biderik egokiena harmonizazio fiskala da. Halere, europar erakundeek badute beste baliabide bat hainbat eragozpen fiskal gainditzeko: lehiatzeko baldintzak distortsionatzen dituzten arau fiskalak "estatuko

laguntza” gisa kalifika ditzakete<sup>9</sup>. Harmonizazioa aurrera eramateko dauden zailtasunen aurrean, zenbait arauak Barne-Merkatuan sortzen dituzten distorsioen aurka borrokatzeko Hitzarmenean aurreikusten den baliabidea da.

Estatuko laguntzen oinarrian aurkitzen den ideia ondorengoa da: europar estatuak edo beste gainontzeko botere publikoek enpresei ematen dizkieten laguntzek, lehiatzeko berdintasuna kalte dezakete, enpresa batzuk besteak baino kompetitiboagoak bihurtuz. Enpresek jasotako laguntza horiek Merkatu Batuaren kontrakoak dira<sup>10</sup>.

Europar Elkarteetako Justizia Auzitegiak adierazi du estatuko laguntzen kontzeptua dirulaguntzena baino zabalagoa dela, dirulaguntzak bezalako prestazio positiboek gain prestazio negatiboak ere barne baitaude. Justizia Auzitegiarentzat eta Batzordearentzat estatuko laguntza oso kontzeptu zabala da. Estatuko laguntza izan daiteke, herrialde bateko enpresak beste enpresa guztien aurrean lehiatzeko egoera hobean ipintzen dituen abantaila. Horrela, estatuko laguntzak izan daitezke, dirulaguntzak, zergen salbuespenak, interesen gaineko hobariak, baldintza berezietan emandako maileguen bermeak, lurrak edo ondasun higiezinak musu truke edo baldintza probetxugarrietan lagatzea eta ondorio baliokideak dituen edozein laguntza.

Laguntza batek, estatuko laguntza bezala kalifikatua izateko, ondorengo ukanbeharretako bat bete beharko du:

- 1) Laguntzak enpresa edo ekoizpen zehatzei mesede egitea. Ez da estatuko laguntza izango, estatu osorako laguntza orokorra baldin bada.
- 2) Laguntzek estatu kideen arteko eskualdaketa komertzialengan eragina izatea. Lehiarengan dituen efektuak txikiak balira, ez litzateke estatuko laguntza izango.

87. artikulua bere 2. eta 3. lerroaldeetan hainbat salbuespen aurreikusten ditu.

“

**Europar Elkarteetako Justizia Auzitegiak adierazi du estatuko laguntzen kontzeptua dirulaguntzena baino zabalagoa dela, dirulaguntzak bezalako prestazio positiboek gain prestazio negatiboak ere barne baitaude.**

”

Laguntza bat salbuespen suposamenduen artean aurkitzen baldin bada, ez litzateke estatuko laguntza bezala kalifikatuko.

Batzordea da estatuko laguntzak kontrolatzen dituen erakundea. Berrikuspen prozedura 88. artikuluan aurreikusten da. Jadanik indarrean dauden laguntzak kontrola ditzake eta baita estatuak onartu behar dituzten laguntza berriak ere. Batzordeak, interesatuen alegazioak entzun ondoren, laguntza bat Merkatu Batuarekin bateraezina dela uste badu, estatuak laguntza ezabatu edo aldatu behar duela erabakiko du. Estatuak ez badu Batzordearen erabakia betetzen, Batzordeak edo beste estatu batek zuzenean Justizia Auzitegira jo ahal izango du.

Batzordeak, estatuko laguntzei buruzko araudian oinarrituz, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek Gasteizen kokatu den Daewoo enpresaren filial bati eman dizkieten laguntzak

9. Hala ere, Estatuko laguntzen prozedura distorsio fiskal mota bakar bati ezarri ahal izango zaio: erregimen onuragarriak edo mesedegarriak ezartzen dituzten arauak.

10. Europar Elkartearen Hitzarmenak 87. artikuluan aurreikusten du: *“Salvo que el presente Tratado disponga otra cosa, serán incompatibles con el mercado común, en la medida en que afecten a los intercambios comerciales entre Estados miembros, las ayudas otorgadas por los Estados o mediante fondos estatales, bajo cualquier forma, que falseen o amenacen falsear la competencia, favoreciendo a determinadas empresas o producciones.”*



aztertu ditu. Batzordeak, eman diren zenbait laguntza "estatuko laguntza" direla erabaki du.

#### 4. Daewoori emandako laguntzak

Europar Batzordeak hartutako erabakian adierazi du euskal erakundeek Daewoo enpresari emandako laguntzak, *estatuko laguntza* eta Erromako Hitzarmenaren aurkakoak direla<sup>11</sup>. Aldez aurretik, argitu beharra dago Batzordeak emandako erabakia ez dela ofizioz berak irekitako prozedura baten emaitza. Salaketa baten ondorioz hasi zen Batzordea DEMESAk jasotako laguntzak aztertzen. Lehenengo salaketa, *Asociación Española de Fabricantes de Electrodomésticos de Línea Blanca*, ANFELeK, tarteratu zuen. Gero, Batzordeak beste bi salaketa gehiago jaso zituen: bata, *European Committee of Manufacturers of Electrical Domestic Equipment*-ek aurkeztua, eta bestea, *Associazione Nazionale Industria Elettrotecnica ed Elettronich*-ek aurkeztua.

Daewoo enpresa korearrak, DEMESA (Daewoo Electronics Manufacturing España, S.A.) filialaren bitartez, euskal erakundeek emandako ondorengo laguntzak jaso zituen Gasteizen instalatzeagatik eta bertan lantegi bat ipintzeagatik:

**1) Lursailagatik:** DEMESA, Gasteizko Jundizeko industrialdean kokatu zen, 50.000 metro karratuko lursail batetan. Batzordearen iritziak, DEMESAk bi unetan jaso zituen estatuko laguntzak lursailagatik:

- Lursaila ezer ordaindu gabe okupatu eta erabili zuelako 9 hilabetetan zehar. Batzordearen iritziak, DEMESAk lurra 1997ko otsailean okupatu zuen eta urte horretako azarorarte ez zuen lursaila ordaindu. Horrek abantaila bat suposatu zuen enpresarentzat. Batzordeak laguntza hau 30 milioi pezetetan baloratzen du.
- Lursaila merkatuko prezioa baino prezio baxuagoan erosi zuelako. Batzordearen ustez, DEMESAk lurra erosterakoan merkatuan ordaintzen zena baino gutxiago ordaindu zuen. Batzordeak prezioari buruz auditoria bat egin zuen eta enpresak izandako aurrezpena 35 milioi pezetetan baloratu du. Aurrezpen hori estatuko laguntza gisa kalifikatzen du.

**2) EKIMEN Programako laguntzengatik:** DEMESAk Eusko Jaurilaritzaren EKIMEN programaren hainbat dirulaguntza jaso zituen. Batzordeak, dirulaguntza horiek EKIMEN programak aurreikusten dituenak baino handiagoak direla dio, eta, ondorioz, estatuko laguntza direla.

Batzordeak 1996an onartu zuen EKIMEN programa, EAEn eskualde-laguntza programa bezala<sup>12</sup>. Programa honen babesean DEMESAk egindako inbertsioek dirulaguntza bat jaso dezakete, gehienez inbertsioaren 100eko 25ekoa. Batzordearen ustez, EKIMEN programaren babesean eman zitezkeen baino dirulaguntza altuagoak eman zaizkio DEMESARI. EKIMEN programako dirulaguntzak gutxienez inbertsioaren 100eko 10ekoak izango dira. Halere, inbertsioak estrategikotzat jo baldin badaitezke, sortzen diren lan postuak asko baldin badira, lehentasuneko interesa duen gunean gauzatzen baldin bada inbertsioa edota EAeko sektore estrategiko batean egiten den inbertsioa baldin bada, dirulaguntza aipatu faktore bakoitzeko 100eko 5a handi daiteke, gehienez 100eko 25 izatera iritsi arte.

Batzordearen ustez, Gasteiz - bertan kokatzen baita DEMESAREN lantegia - ezin daiteke "lehentasuneko interes gune" bezala kalifikatu; ezin da beraz, dirulaguntza arrazoi horregatik 100eko 5 handitu. Ondorioz, Batzordearen iritziak, emandako dirulaguntzaren 100eko 5a ez da EKIMEN programaren babesean aurkitzen eta estatuko laguntza da. Bestalde, egindako inbertsioen zati batek ez du dirulaguntza jasotzeko eskubiderik. EKIMEN programaren arabera, hirugarrenei lagatzen zaizkien aktiboei ezin dute dirulaguntzarik jaso. DEMESAK erositako ekipo batzuk (300 milioi pezetetan baloratuak) beste hirugarren enpresetan instalatu direnez, inbertsio hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso. Estatuko laguntza dira.

**3) Arabako Lurralde Historikoan indarrean dauden onura fiskalak:** Batzordearen iritziak, Arabako Foru Aldundiak ondorengo laguntzak eman zizkion DEMESARI:

- Egindako inbertsioen gaineko kreditu fiskala, 100eko 45ekoa.
- Sozietateen gaineko Zergaren oinarri zergagarriaren murriztapena.

Europar Batzordeak pizgarri fiskalei buruz emandako iritziek etorkizunari begira euskal

11. Decisión de la Comisión de 24 de febrero de 1999, relativa a la ayuda estatal concedida por España a favor de Daewoo Electronics Manufacturing España S.A. (DEMESA).

12. Eusko Jaurilaritzaren 289/1996 DEKRETUA, abenduaren 17koa, enplegua sortzen duten ekoizpen-inbertsio industrialetarako laguntza ekonomikoiei buruzko Ekimen egitaraua arautzeko dena.



erakundeentzat izan dezaketen garrantzia dela eta, ondorengo lerroetan, DEMESAK jaso dituen laguntza fiskalak izango dira aztergai.

## 5. Arabako araudian aurreikusten diren DEMESAK jasotako "laguntza" fiskalak

EAEko zerga-erregimena Kontzertu Ekonomikoan arautzen da<sup>13</sup>. Itun Ekonomikoa, estatuaren eta EAE osatzen duten Lurralde Historikoen arteko hitzarmena da. Itun edo hitzarmen hau formalki estatuko lege baten bidez onartzen da eta estatua eta EAERen arteko zerga mailako erlazioak arautzen ditu.

Itun Ekonomikoa arautzen duen legearen 2. artikulua aurreikusten du zeintzuk diren Foru Lurraldeen eskuduntzak: "*Lurralde historikoetako erakunde eskudunek -bakoitzak bere lurralde barruan- tributu-erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena izango dute...*". Batzordeak onartu egiten du hori eta espreski esaten du Kontzertu Ekonomikoaren babesean Arabako Foru Aldundiak bere lurraldeko erregimen fiskala ezarri, arautu eta mantentzeko. Hala ere, Batzordeak Foru Aldundiari esleitzen dio zerga arauak onartzeko ahalmena, eta hori ez da gutziz zuzena. Itun Ekonomikoa esaten du Foru Lurraldeetako erakundeak izango direla eskudunak, eta erakunde horien artean Batzar Nagusiak izango dira, "botere legegile" bezala, foru arauak onartzeko dituztenak, eta Foru Aldundia izango da, "botere exekutibo" bezala, foru arauak garatu eta ezarriko dituenak. Batzar Nagusiak izan dira, beraz, DEMESARI, Araban egoitza duen sozietatea izateagatik, ezarri behar zaion araudia onartu dutenak.

Batzordeak ez du Itun Ekonomikoari buruz beste ezer esaten; zuzenean arau fiskal zehatzak aztertzeari ekiten dio<sup>14</sup>. Neurri fiskalak estatuko laguntza bezala kalifikatzeko, 92. artikuluan aipatzen diren lau baldintzak bete behar direla adierazten du Batzordeak.

**Lehenengo baldintza:** onuradunak egoera arrunt batean jasan beharko litzuzkeen kargak gutxitzen dituelako, neurriak abantaila suposatzen behar du. Enpresek jasan behar dituzten zama fiskalak modu desberdinetan murriz daitezke.

Adibidez, irabaziengatik ordaindu beharreko zerga murriztuz.

**Bigarren baldintza:** laguntza, estatuko fondoetatik etortzea. Estatuak kobratu beharreko zerga gutxitzen bada, estatuko fondoak dira kaltetuak gertatzen direnak. Baliokidea da, beraz, estatuarengandik dirulaguntza zuzen bat jasotzea edota estatuari ordaindu beharreko zerga gutxitzea. Irizpide hau ez da estatuentzat bakarrik, berdin aplikatzen zaie eskualde-erakundeei eta erakunde lokalei.

**Hirugarren baldintza:** neurriak estatu kideen arteko lehiarengan eta eskualdaketengan eragina izan behar du. Baldintza hau beteko da, laguntza jasotzen duen enpresak beste estatu kideetan eskualdaketak burutzen baditu.

**Laugarren baldintza:** neurriak selektiboa izan behar du; alegia, "zenbait enpresa edo ekoizpenentzat" onura bat izan behar da. Neurri selektiboa da, onuraduna hauta daitekeenean eta ez denean neurri orokorra.

Ikus dezagun nola aztertu dituen Sozietateen gaineko Zergaren onura fiskalak.

### 1) Inbertsioen zenbatekoaren gaineko 100eko 45eko kreditu fiskala<sup>15</sup>

1995. urterako Aurrekontua onartzen zuen Foru Arauaren seigarren xedapen gehigarrian aurreikusten zen:

- Aktibo finko material berrietan egindako inbertsioek,
- 1995eko urtarrilaren 1etik 1995eko abenduaren 31 bitartean egin zirenean,
- baldin eta 2.500 milioi pezetatik gorakoak baziren,

Arabako Foru Aldundiak hartutako Erabakiaren arabera, Aldundiak zehazten zuen inbertsioaren 100eko 45eko kreditu fiskala izango zutela. Kreditu fiskalak suposatzen du, urteko irabazien arabera kalkulaturiko Sozietateen gaineko Zergagatik ordaindu beharreko kuota, kreditu fiskalaren zenbatekoarekin murriztu egingo dela<sup>16</sup>.

13. Kontzertu edo Itun Ekonomikoa 1981eko maiatzaren 13ko 12/1981 Legean arautzen da. Lege hau 1997. urtean erreformatu da azkeneko aldiz.

14. Nahiz eta erabakian bertan esaten den, EAEko erakundeek Itun Ekonomikoari buruzko oso txosten zabala aurkeztu zuten. Bertan erregimen foralaren oinarri historikoak, konstituzionalak eta estatutu mailakoak azpimarratzen ziren.

15. Asko eztabaidatu da neurri honi buruz. Estatu espainiar mailan, EAEko Justizia Auzitegiak hiru sententzia eman ditu Foru Lurralde bakoitzak onartu duen kreditu fiskalari buruz.

16. Sozietate batek 2.500 milioko inbertsioa egiten badu, bere kreditu fiskala 1.125 miliokoa izango da. Horrek esan nahi du, urteetan zehar denetara ordainduko ez den zerga 1.125 miliokoa izango dela.



Kreditu fiskala estatuko laguntza den erabakitzeke, aipatu baldintza guztiak aztertzen ditu Batzordeak.

**Lehenengo baldintza:** Kreditu fiskalaren ondorioz, DEMESAk ordaindu beharreko zerga, egindako inbertsioaren 100eko 45ean murrizten da. Nabarmena da beraz, kreditu fiskalak DEMESArekin zama fiskala gutxitzen duela.

**Bigarren baldintza:** kreditu fiskala Arabako erakunde publikoek onartu dute eta beren sarrera publikoak murrizten ditu, zerga gutxiago biltzen baita.

**Hirugarren baldintza:** DEMESAk burutzen duen jarduera ekonomikoak eragina du estatu kideen arteko eskualdaketengan eta baita Elkartearen aurkitzen diren beste enpresengan ere.

**Laugarren baldintza:** Batzordearen ustez, kreditu fiskala ez da neurri okorra, selektiboa baizik, hainbat arrazoigatik:

- Foru Aldundiak zuhurtzarako ahalmena zuen erabakitzeke DEMESArekin zein inbertsiok zekarten kreditu fiskalaz gozatzeko eskubidea. Foru Aldundia zen kreditu fiskalaren eremu objektiboa askatasunez ezar zezakeena.
- Kreditu fiskala izateko, 2.500 milioi baino gehiago inbertitu behar dira. Horrelako inbertsioak inbertsore eta enpresa handiek bakarrik egin ditzakete eta horrek izaera espezifikoak ematen dio laguntzari. Beste enpresa inbertitzaileak kanpo uzten dira.
- Kredituaren izaera tenporalak (1995. urtean zehar egindako inbertsioek izango dute kreditua), erakundearen esku uzten du kreditu fiskala zenbait enpresei ematea. Neurri hau ez da araudi fiskal orokorrean jasotzen, aurrekontu arau batean baizik; horrek bere izaera kointurala eta espezifikoak baieztatzen du.
- Batzordeak kreditu fiskalaren eta EKIMEN programaren artean erabateko identitatea aurkitzen du. Bai helburu aldetik (inbertsio berrien finantzaketa) eta baita lurralde eremu aldetik ere. EKIMEN programa eskualde-laguntza bezala tramitatu eta jakinarazi bazen, kreditu fiskala ere eskualde-laguntza bezala tramitatu behar zen. Ez zen, ordea, horrela egin.

Arrazoi guztiengatik, Batzordearen ustez, Arabako Foru Aldundiak DEMESArekin emandako kreditu fiskala estatuko laguntza da.

Batzordearen iritziak laugarren baldintzan du bere punturik ahulena. Estatuko laguntza

izateko bete behar diren lehenengo hiru baldintzak, dudarik gabe bete egiten dira: DEMESAk jasan beharreko zama fiskala murriztu egiten da, Aldundiaren fondoen kontura ematen da laguntza eta DEMESAk nazioarte mailan egiten dituen eragiketak, beste herrialdeen eragiketengan eragina du laguntzak.

Baina laugarren baldintza ez du ondo justifikatzen Batzordeak:

- Lehenik, kreditu fiskala onartzerakoan Aldundiak askatasuna duela esaten du, eta erabaki dezakeela kreditua enpresa bati ematea eta beste bati ez. Horrek, laguntza espezifikoak bihurtuko luke. Aldundiak bere alegazioetan, kreditu fiskala, Foru Arauan aurreikusten ziren ukanbeharrak betez gero, automatikoa zela esan zuen. Aldundiak ez zuela botere diskrezionalik.

Egia da arauaren idazkerak ez duela zehazten zein inbertsiok izango duen kreditu fiskala. Arauak literalki aurreikusten du, Arabako Aldundiak erabakitzen duen inbertsioaren zenbatekoak izango duela kreditu fiskala. Ziur aski, erredakzio honek nabarmendu nahi zuen Aldundiak kontrol funtzioa zuela egiten ziren inbertsioak "egokiak" zirela ikuskatzeko. Aldundiak berak alegazioetan esaten du, enpresa batek 2.500 milioi baino gehiago inbertitzen baditu, kreditu fiskala automatikoa izango dela. Batzordeak ez dio aldarrikapen horri jaramonik egiten.

- Batzordearen iritziak, kreditu fiskala 2.500 milioi pezetetako inbertsioak gainditzen dituztenentzat bakarrik izateko, laguntza espezifikoak bihurtzen du, beste enpresa guztiek ezin baitute kreditu fiskalik jaso. Ulergarria dirudi inbertsioaren 100eko 45eko aurrezpen fiskala jasoko duen enpresa bati, kontraprestazioz laguntzaren adineko zerbait galdatzea. DEMESArekin laguntza hori ematen zaio, Gasteiz eta Arabako aberastasun iturri izango delako eta lanpostu kopuru garrantzitsu bat sortuko duelako. Ez da gauza bera 250, 1.000 edo 2.500 milioi pezeta inbertitzea. Inbertitzen den zenbatekoa eta inbertsioak ekonomikoki suposa dezakeena desberdinak badira, arrazoizkoak da kreditu fiskalaren esparru objektiboa mugatzea. Gainera, 2.500 milioi pezeta baino gutxiago inbertitzen duten enpresek, Sozietateen gaineko Zergaren araua aurreikusten den kenkariaz goza dezakete. Inbertitutakoaren 100eko 15eko dedukzioa izango dute. Ez da, beraz, edo kreditu fiskala edo ezer ez.

- Azkenik, Batzordearen iritziak, kreditu fiskala aurrekontu araua jasotzen denez, neurri kointurala da eta Aldundiak



askatasuna du kreditu fiskala ematerakoan. Egia da, egun, oro har, aurrekontu legeak ez direla behar bezala erabiltzen. Behar ez diren gaiak arautzen dira aurrekontu legeetan. Aurrekontu legeak aurrekontua izan beharko luke objektu, eta bestelako gai sustantiboak berezko arauetan jaso beharko lirarteke. Kontuan izanda kreditu fiskala 1995etik aurrera Aurrekontu legeetan urtero onartzen dela, komenigarria izango litzateke behingoz Sozietateen gaineko Zergan arautzea<sup>17</sup>. Hala ere, kreditu fiskala Aurrekontu arauan aurreikustea, zerbait formala da. Aurrekontu araua ere, araua da, eta bertan arautzen dena inolako bereizitasunik gabe ezargarri da. Formazko arrazoi batengatik ezin daiteke laguntza bat espezifiko edo orokor bihurtu.

## 2) Enpresa sortu berrientzat oinarri ezargarriaren murriztapena

Enpresa sortu berriak direnean, enpresaren urteko irabaziek osatzen duten Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarria murrizteko aukera ematen du zergaren Foru Arauak<sup>18</sup>. Batzordearen ustez, arestian aztertu dugun inbertsioagatik jaso daitekeen kreditu fiskala eta enpresa sortu berria delako oinarri zergagarriaren murriztapena, ez dira bateraezinak. Neurri bakoitzak aurreikusten dituen baldintzak betetzen badira, posible da enpresa batek bi onura fiskalak jasotzea. Pizgarri bakoitzaren aurreuposamendu objektiboa desberdina da eta DEMESAren kasuan posible izango litzateke bi neurri fiskalak akumulatzea.

Arabako Foru Aldundiak, Batzordeari bidalitako gutunean, adierazten du bi laguntzak bateraezinak direla, hau da, DEMESA kreditu fiskala jaso duenez ezingo duela oinarri zergagarria murriztu. Batzordearen eta Foru Aldundiaren interpretazioak ezberdinak baldin badira ere, Batzordeak aurrera jotzen du eta neurri fiskala "estatuko laguntza" kalifikatzeko baldintzak betetzen diren ala ez aztertzen du.

**Lehenengo baldintza:** DEMESA bere Sozietateen gaineko Zergaren oinarri zergagarria murrizteak, ordaindu beharreko zerga gutxitzen du. Zama fiskalak murrizten dira, beraz.

**Bigarren baldintza:** Oinarri zergagarria murrizteagatik Foru Aldundiak sarrera publiko gutxiago jasoko ditu.

**Hirugarren baldintza:** pizgarri fiskalak lehiarengan eragina du, DEMESAren jarduera ekonomikoa estatu kideetan burutzen baita.

**Laugarren baldintza:** neurria selektiboa da, enpresa sortu berriak baitira oinarri ezargarria murriz dezaketen bakarrak. Enpresa sortu berriei, jada merkatuan aurkitzen diren enpresei baino tratu hobea ematen zaie. Ezaugarri hau nahikoa da, Batzordearen ustez, neurriaren izaera espezifiko aldarrikatze.

Arrazoi hauengatik guztiengatik, eta gainera Arabako erakundeek ez zutelako neurri hau laguntza bezala tramitatu eta, ondorioz, beharrezko onarpenak jaso ez zituenez, Batzordeak neurri fiskal hau *estatuko laguntza* gisa kalifikatzen du.

Batzordeak, enpresa sortu berrien Sozietate gaineko Zergan oinarri zergagarriaren murrizketa aztertzerakoan, ez du DEMESA jaso duen laguntza bat aztertu. Sozietateen gaineko Zergan orokorki aurreikusten den neurri bat, DEMESA jaso baino lehen, aztertu du. Ez du aztertzen jasotako laguntza bat, baizik eta jaso dezakeen laguntza bat. Eta gainera ez dago argi laguntza hori jasoko duen ala ez. Ez dago argi DEMESA bere Sozietateen gaineko Zergaren oinarri zergagarria lau urtetan murriztuko ote duen. Araudiak ez du erabat argitzen. Batzordeak interpretatzen du ez dagoela bateraezintasunik inbertsioagatik jasotzen den kreditu fiskalaren eta oinarri zergagarriaren murrizketaren artean. Arabako Foru Aldundiak, aldiz, baietz uste du, bi pizgarri fiskalak bateraezinak direla, kreditu fiskala jasotzen bada ezin dela oinarri zergagarriak murriztu. Interpretazio zuzena zein den jakin gabe, Batzordeak bere interpretazioa defendatzen du. Oraindik DEMESA gozatu ez duen laguntza fiskala, eta Zergaren kudeatzailea den Aldundiaren ustez inoiz jasoko ez duen laguntza fiskala, *estatuko laguntza* modura kalifikatzen du.

Baditu Batzordearen erabakiak iritzi kritikagarri gehiago. Batzordearen ustez, oinarriaren murriztapena ez da neurri orokorra, enpresa sortu berrientzat bakarrik delako. Enpresa berrien sorrera bultzatzeko, sortu berria den enpresari lehenengo lau urteetan ordaindu beharreko zerga murrizten zaio. Nahitaez, araudiak pizgarriaren ezarpen eremua enpresa sortu berriei mugatu beharra zeukan. Pizgarri fiskalek beti mugatzen dute bere eremu objektiboa. Adibidez, kutsadura murriztu nahi bada, helburu horretara bideraturiko inbertsioak bultzatzen dira; langileak kontratatzea bultzatu

17. Kreditu fiskalak Arabako Aldundiaren Aurrekontuan eragin handia izan dezake. Baina ez inbertsioa egiten den ekitaldian bakarrik, baizik eta baita hurrengo urteetan ere.

18. 24/1996 Foru Arauaren 26. artikulua aurreikusten du: "Iharduera enpresariala hasten duten sozietateei 100eko 99, 75, 50 eta 25 murriztuko zaie, hurrenez hurren, beren ustiapen ekonomikoan jardunetik eratorritako oinarri ezargarri positiboa...".



“ Europa mailan bere lehiakideak izango direnak jasaten ari diren krisialdiak kontuan izanda, DEMESARI emandako laguntzek batasun barneko eskualdaketengan eragina dute eta interes komunaren aurkakoak dira.



nahi bada, langileak kontratatzen dituztenei zuzentzen zaie pizgarria; esportazioa bultzatu nahi bada, esportatzaileei, etab. Beste eztabaida bat izango da, ea oinarriaren murriztapena pizgarri bezala justifika daitekeen ala ez. Baina hori ez da Batzordeak aztertzen duena. Batzordeak aztertzen du laguntza hau orokorra edo espezifikoa den eta ez du justifikatzen zergatik den neurri espezifikoa. Batzordeak, pizgarriak arautzeko erabili den arau-teknika nabarmentzen du eta horrekin bakarrik *estatuko laguntza* gisa kalifikatzen du.

Azkenik, Batzordeak DEMESARI emandako laguntzak estatuko laguntza bezala kalifikatu ondoren, laguntza hauek 92. artikuluko 3. lerroaldian<sup>19</sup> aurreikusten diren salbuespenekin justifika daitezkeen ala ez aztertzen du. Batzordearen iritziz, Gasteiz ez dago bizitza maila oso baxua edo langabezia larria duen eskualde batean; DEMESARI emandako laguntzak ez daude interes komuneko proiektu batera zuzendurik, ezta espainiar ekonomiaren desoreka larri bat konpontzera ere; laguntzak ez dira kultura

bultzatzera ezta ondarea kontserbatzera zuzentzen; eta azkenik, DEMESAK jarduten duen sektore ekonomikoaren egoera larria dela eta, Europa mailan bere lehiakideak izango direnak jasaten ari diren krisialdiak kontuan izanda, DEMESARI emandako laguntzek batasun barneko eskualdaketengan eragina dute eta interes komunaren aurkakoak dira.

Laguntza guztiak, beraz, Merkatu Batuaren aurkakoak dira. Batzordeak erabaki du Espainiak laguntzak legez kontra aplikatu dituela. Eta onuradunari, DEMESARI, jaso dituen laguntzak itzularazteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko dituela. Zehazki, DEMESAK itzuli beharko ditu:

- Lur saila erosi zuenean ordainketaren atzerapenagatik izan zuen abantaila.
- Lur sailagatik ordaindutakoa merkatuko balioa baino gutxiago zenez, izandako abantaila.
- EKIMEN laguntzen 100eko 5a eta laguntzarik jaso ezin duten aktiboei emandako laguntza.

Eta Foru Aldundiak DEMESARI eskubidea ukatu beharko dio:

- Egindako inbertsioagatik kreditu fiskala izateko.
- Enpresa sortu berria izateagatik oinarri zergagarria murrizteko.

**Azkeneko berriak:** Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Batzordearen erabakia aurkatu dute. Bi erakundeek deuseztatzeko errekurtsoa aurkeztu dute Europar Elkarteetako Justizia Auzitegiaren aurrean. Eusko Jaurlaritzak EKIMEN programaren babesean emandako dirulaguntzak defendatzen ditu, eta bere aldetik, Arabako Foru Aldundiak aplikatu diren arau fiskalen zilegitasuna defendatzen du.

Bestalde, Batzordeak, aztertu ditugun laguntza fiskalen aurkako urraketa espedienteak zabaldu ditu, laguntzak legezkontrakoak eta lehiakortasunaren aurkakoak direla argudiatuz. Espedienteen helburua, aipatu ditugun laguntza fiskalak orokorki gaitzestea da, laguntzen ezarpen zehatzak kasuz kasu aztertzen ibili gabe.

19. Egun indarrean dagoen Hitzarmenaren 87.3 artikulua.

